



## 2023 UDAL HAUTESKUNDEAK HAUTAGAI ZERRENDAK

### Aiaraldeko Alderdi Politikoei

**Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua**k gure eskualdean euskararen normalkuntza erdiestea xede du. Horretarako etengabe eta alor orotan aurrerapausuak eman beharra dago. Urrats horiek egitera bultzatu eta lagundu nahi du 44 entitate bildu eta 9 udalerritan lan egiten duen gure elkarteak.

Udal instituzioak herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak dira. Udal langileekin batera, alkate eta zinegotziak dira pieza klabea, herritarrek Udalarekin dituzten harremanetan **hizkuntz eskubideak** bermatuta izan ditzaten.

Testuinguru honetan, **hautagai euskaldun** batek hizkuntza eskubideak bermatzen ditu, gutxienez elebiduna baita euskalduna, herritar guztiei bere hizkuntzan entzun, ulertu eta erantzuteko gai.

Agintariak **erreferente** ere badira herritarrentzat eta **eredu** izan behar dute, baita **euskararen** alorrean ere.

2023an **Udal hauteskundeak** datoz. Une honetan zerrendak osatzen hasteko lanetan dira alderdi politiko ezberdinak. Zerrenda horietan **euskararen irizpidea** presente izan dadila eskatzen dugu.

Zerrendak publiko egitean, hautagai bakoitzaren **euskara maila** zein den azaltzea nahi dugu. Ohikoa izaten da hautagaiaren ikasketak edo lanbidea zehaztea, ba informazio hori osatzeko euskaldun osoa, euskaldun hartzailea, euskara ikaslea edo euskaraz ez dakiela adieraztea beharrezkoa litzateke. Herritarrak bere aukera ahalik eta informazio osoenarekin egin ahal izan dezan eta gardentasunez jokatzeko. Halaber, pausu txiki horrek berez hizkuntzari garrantzia eta balioa ematea lekarke eta **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua**k oso modu positiboan baloratuko luke.



Izan ere, **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua**k hautagai zerrendei begira hiru pausu emango ditu:

1. Eskualdeko alderdi guztiekin bilera erronda egin eta hautagai zerrendetan euskararen irizpidea presente egoteko eskuetan duzen proposamena helarazi
2. Alderdiekin izandako erronda bileraren eta luzatutako proposamenaren berri eman publikoki: hedabideetan, sare sozialetan, gure buletin eta web orrialdean,...
3. Hautagai zerrendak publiko egiten direnean berauen balorazio publiko bat egingo dugu, zerrenda bakoitzari behean azaltzen ditugun irizpideen arabera nota bat jarriz, euskararen normalkuntzari egiten dion ekarpena baloratzuz eta hizkuntz eskubideen bermatzaile zein neurritan izan daitekeen azalduz.

## BALORAZIORAKO FORMULA

### Alkategaia

Alkategaia euskaldun osoa 23 puntu

Alkategaia euskaldun hartzailea\* 5 puntu

Elebakarra 0 puntu

### Zinegotzigiak

Zerrendako 2.netik 7.nera

euskaldun osoa 2 puntu

euskaldun hartzailea\* puntu 1

elebakarra 0 puntu

Zerrendako 8.netik

euskaldun osoa puntu 1

euskaldun hartzailea\* 0,5 puntu

elebakarra 0 puntu

## Adibide batzuk

1. Laudio. Zerrendak **17** hautagai izan behar ditu. Ordezkoak ez ditugu baloratuko (zerrenda batek izan ditzake beste batek ez,...). Lortu daitekeen puntuaziorik onena atalez atal: alkategaia 23 puntu + zinegotziak (2-7) 12 + zinegotziak (8-17) 10 = **45**

**A kasua:** alkategai elebakarra, zerrenda osoa euskaldun osoa, nota\* 4,8

**B kasua:** alkategai euskaldun hartzailea, zerrenda osoa euskaldun osoa, nota\* 6

**C kasua:** alkategaia euskaldun osoa, zerrenda osoa elebakarra, nota\* 5,1

2. Aiara. Zerrendak **11** hautagai izan behar ditu. Ordezkoak ez ditugu baloratuko (zerrenda batek izan ditzake beste batek ez,...). Lortu daitekeen puntuaziorik onena atalez atal: alkategaia 23 puntu + zinegotziak (2-7) 12 + zinegotziak (8-11) 4 = **39**

**A kasua:** alkategai elebakarra, zerrenda osoa euskaldun osoa, nota\* 4,1

**B kasua:** alkategai euskaldun hartzailea, zerrenda osoa euskaldun osoa, nota\* 5,3

**C kasua:** alkategaia euskaldun osoa, zerrenda osoa elebakarra, nota\* 5,8

3. Arakaldo. Zerrendak **5** hautagai izan behar ditu. Ordezkoak ez ditugu baloratuko (zerrenda batek izan ditzake beste batek ez,...). Lortu daitekeen puntuaziorik onena atalez atal: alkategaia 23 puntu + zinegotziak (2-7) 8 = **31**

**A kasua:** alkategai elebakarra, zerrenda osoa euskaldun osoa, nota\* 2,5

**B kasua:** alkategai euskaldun hartzailea, zerrenda osoa euskaldun osoa, nota\* 4,2

**C kasua:** alkategaia euskaldun osoa, zerrenda osoa elebakarra, nota\* 7,4

## Ondorio batzuk

- Kasu guztietan ez dago gainditzeko aukerarik alkategai elebakar batekin.
- Herria zenbat eta txikiagoa izan orduan eta pisu gehiago hartzen du Alkatea euskaldun osoa izatea.
- Alkatea euskaldun hartzailea\* izanda (hots, euskara ulertu baina hitz egiten ez duena) soilik gainditu daiteke zerrendako gainerako guztiak euskaldun osoak baldin badira. Salbuespena herri txikiak dira, kasu horretan ez bailukete gaindituko.
- Formula honek ez du kontuan hartzen egun alderdi bakoitzak udalbatzan duen ordezkartza, hala eginez gero gerta bailiteke ia osoki euskalduna den zerrenda batek euskaldun bakarra duen beste zerrenda batek baino puntuazio kaxkarragoa lortzea.

## AZKEN HITZA

Hautagai zerrendei loturiko ekimena da hau, zeinetan euskararen irizpidea kontuan hartu, hautagai bakoitzaren euskara maila publiko egin eta orohar hizkuntz eskubideak bermatuko dituzten hautagaiak euskaldun elebidunak izatea eskatzen baitiegu Aiaraldeko Udal Hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politikoei.

Gardentasunaren alde eta herritarrek beren bozka eskubidea baliatzean ahalik eta informazio osatuena izan dezaten, ekimen honen inguruan ematen ditugun pausu guztiak publiko egingo ditugu. Hautagaien zerrenda publiko denean, dokumentu honetan azaltzen diren irizpide eta formularekin balorazio publiko bat egingo du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak.

Helburua da normalkuntzan aurrera-pausuak ematen jarraitzea da, hizkuntz eskubideak bermatzea, euskararen inguruko praktika onak txalotzea,...

Ekimen hau *Bai We Can* ekimenetik independentea da, baita alor honetan Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak aurrerago aurkeztu ditzakeen beste ekimenez ere.

***Aiaraldean, 2022ko apirilaren 2an***